

# UNIBERTSITATEKO IKASLEEN ESTATUTUA

Abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretuak



**EUSKAMPUS**  
Nazioarteko Bikaintasun Campusa  
Campus de Excelencia Internacional



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**Abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretuak, BOEn abenduaren 31n argitaratuak, onartu egin zuen Unibertsitateko Ikasleen Estatutua**

- **2007ko Unibertsitateen Lege Organikoak (LOMLOU) Gobernuak Unibertsitateko Ikasleen Estatutua onar dezan agintzen du**
- **Lege organiko horrek Unibertsitateko Ikasleen Kontseiluaren sorrera aurreikusi zuen**
- **Estatuko Unibertsitate Ikasleen Kontseiluak unibertsitate guztietako eta ikasleen batzorde autonomikoetako ordezkariak izango ditu**

## **Euskal Unibertsitate Sistema**

### **UPV/EHUren Estatutuak**

- **Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legea:**  
“**Euskal Unibertsitate Sistemako ikasleek oinarrizko lege-arauetan eta unibertsitateen estatutu eta antolamendu- zein funtzionamendu-arauetan xedatutako eskubideak eta betebeharrak izango dituzte”**
- **UPV/EHUren Estatutuak, 2010eko irailaren 23ko Gobernu Kontseiluan onartutakoak (oraindik ere EHAAn argitaratu gabe):** ikasleen eskubide eta betebeharrak espezifikoak xedatzen dituzte, ikasleen ordezkaritza eta parte-hartzea lantzen dute eta ikasleen eskubideak eta betebeharrak eta ebaluazio-araudia garatuko duen Ikasleen Araudi Berria aipatzen dute

**GMHEEa osatu duten adierazpenek hasieratik (Bolonia, 1998) hartu dute kontuan ikasleen parte-hartzea**

- **Berlingo Ministro Biltzarrak (2003) argi eta garbi aitortu zuen ikasleen zeregina goi-mailako hezkuntzaren kudeaketa publikoan**
- **GMHEEak ikasleek prestakuntza-prozesuko subjektu aktibo gisa duten garrantzia nabarmentzen du**

## **Ikasleek unibertsitate-politikaren diseinuan parte hartzeko baliabide bat dute**

- **Estatutuak, ikasleen eskubide eta betebeharrak arautzen ditu**
- **Araudiak orientazioa, tutoretza eta kanpo-praktikak arautzen ditu**
- **Ebaluazio objektiboa bermatzen du, baita ikasleek ordezkariak edukitzeko bideak ere**
- **Ikasketen eta lanaren arteko bateragarritasuna errazten du, eta kulturako, kiroleko eta elkartasunezko jarduerak aitortzen ditu**
- **Jabetza intelektualaren eskubidea babesten**

## **Estatutuak unibertsitate publiko zein pribatuetako ikasleak hartzen ditu kontuan**

- **Graduko, masterreko nahiz doktoregoko irakaskuntza ofizialetan, etengabeko prestakuntzan eta beste edozein ikasketa motatan matrikulatuta daudenei dagokie**
- **Haren aplikazio-eremuak berezko zentroak, zentro atxikiak eta unibertsitateen mendeko etengabeko prestakuntzako zentroak hartzen**

## **Ikaslea subjektu aktibo gisa**

- **Ikaskuntzako eta irakaskuntzako prozesuan**
- **Unibertsitateen gobernamentuan**
- **Kalitatezko prestakuntza integrala eta arreta jasotzeko eskubidean**

## ESKUBIDEAK

- **Orientazioa unibertsitatean sartu aurretik hasita**
- **Tutoretza pertsonalizatuak eta laneratzeari nahiz unibertsitateko hedatze-jarduerei buruzko informazioa**
- **Irakaskuntza-kalitatearen diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan esku-hartzea**
- **Laneko behatokiak, kalitate-agentziak, bekak nahiz laguntzak eta mugikortasun-programak**



## ESKUBIDEAK

- **Kalitatezko prestakuntza. Ebaluazio objektiboa eta, ahal den guztietan, jarraitua. Lanen egiletasunaren aitortpena.**
- **Curriculumeko nahiz curriculum-kanpoko praktiken sustapena**
- **Ikasketen, lanaren eta familiaren arteko bateragarritasuna, eta arduraldi partzialean ari diren ikasleen aitortpena**
- **Aukera-berdintasuna ezgaitasunen bat duten ikasleentzat**

## BETEBEHARRAK

- **Jarduera akademikoen azterlana egitea eta horietan modu aktiboan parte hartzea**
- **Unibertsitate-komunitateko kideak errespetatzea**
- **Ondasunak, ekipoak eta instalazioak zaintzea**
- **Ez erabiltzea edo bultzatzea iruzurrezko prozedurarik unibertsitatearen ebaluazio-probetan edo dokumentu ofizialetan**
- **Unibertsitateko jardueretan parte hartzea eta laguntzea**
- **Unibertsitateko estatutuak eta gainerako arau guztiak ezagutzea eta betetzea**
- **Segurtasunari eta osasunari buruzko barne-arau guztiak ezagutzea eta betetzea**

## BETEBEHARRAK

- **Unibertsitatearen izena, sinboloak eta ikurrak errespetatzea**
- **Bereizkeriarik ezaren printzipioa egikaritzea eta sustatzea**
- **Ordezkaritza-karguaren berariazko erantzukizunak egikaritzea**
- **Ordezkatutako guztiei parte hartutako organoen jarduerari eta ebazpenei buruzko informazioa ematea, eta baita norberaren jardunei buruzkoa ere**
- **Organo batzuetan parte hartzeko aukeratutakoek organo horien bileretan modu aktiboan eta erantzukizunez parte hartzea**

## **MUGIKORTASUNA**

**Graduko, masterreko eta doktoregoko ikasleen mugikortasuna arautzen du, eta aitortpen akademikoa ematen dio**

- **Laguntzak eta bekak ematea agintzen du**
- **Mugikortasun-programa espezifikoak aurreikusten ditu gradu nahiz master amaierako lanak eta kanpo-praktikak egiteko**
- **Ezgaitasunen bat duten ikasleak nazioko nahiz nazioarteko programetan parte hartzea kontuan hartzen du**

## TUTORETZAK

**Ikasleei prestakuntzaren gaineko informazioa, orientazioa eta laguntza eskaintzeko ekintzak barne hartzen dituzten tutoretza-sistemak sustatzen ditu**

**Unibertsitateko Ikasleen Estatutuak bi tutoretza mota bereizten eta sustatzen ditu:**

- **Tituluko tutoretzen helburua ikasleak unibertsitateko ingurunera egokitzea da; prestakuntzako baliabideak eskainiko dizkiete eta lanerako trantsizioaz arduratuko dira**
- **Irakasgaiko tutoretzetan ikasleek banakako laguntza eta orientazioa jasoko dute, ikaskuntza-prozesu osoan**

## **EBALUAZIOA ETA PRAKTIKAK**

**Irakaskuntza-programak zehaztu egin behar ditu helburuak, emaitzak, edukiak, metodologia eta ebaluazio-sistema**

- **Unibertsitateak alderdi horien berri eman beharko dute**
- **Kanpo-praktika akademikoak, bai curriculumekoak bai curriculumaz kanpokoak, tutoretzapekoak izango dira, kalitatea bermatzeko**
- **Ebaluazio-epaimahaietara joateko, azterketak berrikusteko eta organo eskudunetan erreklamazioak egiteko bermeak**

## **PARTE-HARTZEA**

**Unibertsitateetako gobernu-organoen bidez ikasleek beraiengan eragina duten erabakietan parte har dezatela sustatu nahi du**

- **Ikasleen ordezkarien eskubide eta betebeharrak banan-banan aipatzen ditu**
- **Ikasleak elkartzera animatzen ditu, eta elkarte horiek baliabideak, izan unibertsitateko lokalak izan diru-laguntzak, edukitzea aurreikusten du**

**Hatsarre hau ezartzen du: ikasle batek berak ere ez diezaiola unibertsitateari uko egin arrazoi ekonomikoak direla-eta**

- **Ikasleek, Estatuko Ikasleen Kontseiluaren bidez, ikasteko beka eta laguntzen estatuko programen diseinuan parte hartuko dute**
- **Beken, Laguntzen eta Errendimendu Akademikoen Behatokia laguntzak banatzeko sistema zuzena eta eraginkorra izateaz arduratuko da, eta ikasleek bertan parte hartzea bermatuko du**



## **BIZIKIDETZA**

**Estatutuak unibertsitate publiko zein pribatuetako ikasleen eskubide eta betebeharrak aitortzen ditu**

- **Unibertsitateko Defendatzailearen garrantzia nabarmentzen du**
- **Bizikidetza eta erantzukidetasuna sustatzeko, irakasleek, ikasleek eta administrazio nahiz zerbitzuetako langileek osatutako baterako batzordeak sortu ahal izango dira**

## **IKASLEEN KONTSEILUA**

**Estatuko Unibertsitate Ikasleen Kontseilua ikasleek Hezkuntza Ministerioaren aurrean erabakiak hartzeko, kontsultak egiteko eta parte hartzeko edukiko duten tresna izango da**

- **Haren eraketa, kideen agintea, funtzioak eta egitura zehaztuko dira, eta Unibertsitateetako Idazkaritza Nagusiari atxikiko zaio**

## KONTSEILUAREN OSAERA

**Unibertsitate publiko eta pribatu guztiek izango dituzte ordezkariak Unibertsitateko Ikasleen Kontseiluan**

- **Unibertsitate bakoitzeko ikasle bat**
- **Estatuko Eskola Kontseiluko kide diren ikasle-elkarteen konfederazio nahiz federazio bakoitzeko ikasle bat**
- **Interes orokorrak dauzkaten eta aurreko bidea erabil ez dezaketen ikasle-elkarteen beste hiru ordezkari**
- **Ikasleen kontseilu autonomiko bakoitzeko ordezkari bat**

*Jarraitzen du.....*

## KONTSEILUAREN OSAERA

- **Unibertsitatearen eremuan entzutea duten eta unibertsitateetako edo ikasle-elkarteetako gobernu-kontseiluetako kide diren edo izan diren bost pertsona, Kontseiluko lehendakariak izendatutakoak. Horietako bat, gutxienez, aditua izango da egoera ahulean dauden pertsona-taldeen arloan**
- **Hezkuntza Ministerioa, lehendakari gisa arituko dena, unibertsitateetako idazkari nagusia eta Unibertsitateko Prestakuntza eta Orientazioko Zuzendaritza Nagusiko titularra berezko kideak izango dira**

## **KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA**

**Estatuko Ikasleen Kontseiluak bere antolamenduari buruzko araudia prestatu beharko du sei hilabetean, eta Hezkuntza Ministerioak onartu beharko du**

**Kontseiluaren egitekoak dira :**

- **Gobernuak unibertsitateko ikasleei dagokienez aurkezten dituen proposamen politikoen irizpideen berri ematea**
- **Hezkuntza Ministerioaren aurrean bitartekari baliagarria izatea ikasleen gaineko gaietan**
- **Unibertsitateetako gobernu-organoen jardueran parte hartzea, ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko gaietan**

*Jarraitzen du.....*

## KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA

### ... Kontseiluaren funtzioak:

- **Unibertsitateko Defendatzaileekin elkarlanean aritzea**
- **Gobernuari proposamenak aurkeztea**
- **Tituluen mapari buruzko txostenak ezagutzea**
- **Bekak eta laguntzak emateko irizpideak ezartzeko garaian parte hartzea**

Prestakuntza  
integrala

## **BALIOAK**

**Unibertsitateak sustatzen dituen balioen presentzia bermatzeko baldintzak eduki behar ditu**

- **Ikasleen parte-hartzea sustatu behar du, eta unibertsitateek gizartean esku hartzeko, boluntario-lanak egiteko eta garapen-lankidetzan aritzeko antolatutako jarduerak faboratu behar ditu**
- **Elkartasuneko proiektuekin lotutako ikaskuntza akademikoak eta practicumak sustatu behar ditu**

Prestakuntza  
integrala

## **KIROL-JARDUERA**

**Kirol-jarduera ikasleen prestakuntza integralerako osagai gisa aitortzea**

- **Kirol-jarduerak egiteko bitarteko materialak eta guneak aurreikustea, eta jarduera akademikoarekin bateragarriak izan daitezen sustatzea**
- **Goi-mailako kirolari gisa aitortutako ikasleei erraztasunak ematea**
- **Jarduera fisikoko eta kiroletako programak prestatzea ezgaitasunen bat duten**



Prestakuntza  
integrala

## ARRETA-ZERBITZUAK

- **Ikasleei arreta eskaintzeko unitateak ezartzea, mota guztietako informazioa eta orientazioa eskainiko dutenak. Ikasleak eta horien elkarteak unitate horietan egongo dira**
- **Ezgaitasunen bat duten ikasleei arreta-zerbitzu egokituak eskaintzea**
- **Ostatu-zerbitzuen erabilera eta kudeaketa arautzea**

Prestakuntza  
integrala

## **IKASLE OHIAK**

**Ikasle ohien elkarteen sorrera sustatzea, unibertsitateen irudia hedatzeko, tituludunei lanean hasten laguntzeko eta unibertsitatearen eta gizartearen arteko lotura sendotzeko**

- **Horien eginkizunak dira, besteak beste, ikasleak lortzea, hartzaileztat unibertsitatea duten mezenasgoko jarduerak babestea eta kultura-jarduerak antolatzea**

Prestakuntza  
integrala

## **ESKOLA-ASEGURUA**

**Gobernuak eskola-aseguruaren funtzionamendua berraztertu nahi du, haren erregimena berriz definituko duen lege-proiektu bat aurkezteko, hala bada gokio**

- **Estaltzen dituen arriskuak, ematen dituen laguntzak eta aseguruako beste modalitate batzuekin duen bateragarritasuna aztertzea**

Prestakuntza  
integrala

## **ARAUTZE ZIGORTZAILEA**

**Gobernuak unibertsitateen zigor-agintea arautuko duen lege-proiektu bat aurkeztuko du urtebeteko epean**

- **Unibertsitateko ikasleak zigortzeko erregimenaren arau-haustekak, zigorrak eta neurri osagarriak tipifikatuko ditu, proportzionaltasun-printzipioaren arabera**
- **Ikasleen babes-eskubideak bermatuko ditu, baita prozeduraren eraginkortasuna ere**

## **Ikasleen Estatutuak eta Kontseiluak esparru berria sortu dute ikasleek parte har dezaten**

- **Unibertsitateen finantziarioari buruzko eztabaidan**
- **Beka eta laguntzak emateko eredu berri baten diseinuan**
- **Unibertsitateko politikan erabakiak hartzeko garaian**
- **Unibertsitateen kalitatearen eta gobernamentuaren hobekuntzan**
- **Unibertsitateetan gizarte-erantzukizuna gauzatzeko proposamenak egiteko garaian**